ARKO

ERREPORTAIA: AURTEN INGURUKO BI BASERRI HONDATU DITU SUAK

# Arrasate PRESS

1997ko uztailak 4
370. zenb.



IRITZIA
ASUN AGIRIANO

IKUSPEGIA
AMAIA JAUREGI-ARRABURU

KULTURA
"RIP • VERSIONES" DISKO BERRIA

KIROLAK
URIBE AUZOKO FUTBITOA

# Udalako Rociora!



## Ortega Lara gartzela funtzionarioa Arrasateko zulo batean egon da bahituta 532 egun

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42




WALKMAN-AK • DISC-MAN-AK • BIDEO KAMARAK • ARGAZKI MAKINAK • HI-FI SISTEMAK • BIDEO ZINTAK • AUDIO ZINTAK

Jose Aranzabal

Iturriotz, 15 • ARRASATE • Tel.: 79 15 16

# Merkealdietako muntaiak



Amaia Jauregi-Arraburu

Hemen daude. Heldu dira azkenean. Bazen ordua! "Ikusi dituzu?"; "Egon zara?"; "Bada itxura denez ez da jadanik ezer geratzen. Onenak lehen egunetan saldu ei ziren"; "Dena dela oraindik geratzen da zerbait, zeren bila zoazenaren arabera…"; "Oraindik zeredozer aurkituko duzu…"; "Bada, begira, nik praka batzuk behar nituen, baina nire tailan gustokorik aurkitu ez ditudanez, azkenean jaka hau hartu dut. Polita ezta? Ez dut orain behar baina udazkenerako ondo etorriko zait…".

Bai, nor ez dago jakinaren gainean, hemen daude bai, gure merkealdi zoragarriak (edo zoroak esan behar?).

Hain arrunta egin da fenomeno hau eta hain zabala (nork ez du inoiz ezer erosi merkealditan?) eta hala eta guztiz ere garaia heltzen denean harridura apur bat sortarazten jarraitzen dit. Benetan eskeintzen digute horrenbesterainoko abantailak? Hain "txollo" dira?

Ez pentsa dena dela, eta besterik eman arren, merkealdien guztiz aurka nagoenik, ez baitut uste merkealdiak, berez, kaltegarriak edo zentzugabekeria direnik; bai, ordea, merkealdien inguruan egiten den muntaia, sortzen den eromena, eta azken finean, behar ez ditugun hainbat gauza erostera bultzatzen gaituen kontsumismo hutsalaren islada den fenomenoaren aurka.

**"Kontsumitzaileen elkarteen lanari esker batez ere, iruzurrik egiteko posibilitate gutxiago dago"**

Badirudi, bestalde, azken urteotan, kontsumitzaileen elkarteen lanari esker batez ere, kontrolatuagoak eta iruzurrik egiteko posibilitate gutxiago dagoela; aldi berean jendea beste ikuspegi batekin joaten garela erostera eta engainagaitzago bihurtu garela (pentsa behar!). Eta horretaz gain, alde batetik merkatariek irteera ematen diote biltegian geratuko litzaizkeen hainbat jenerori, eta jende askori, bestela erosi ezin izango zukeena erosteko aukera eskeintzen diote (pentsa behar!).

Eta pentsa beharrean pentsa beharraz, agian hobetotxo pentsatu beharko genuke merkealdien garaia hasten den bakoitzean. ■

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Beñardo Kortabarria. **Kazetariak**: Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Marian Porcel. **Publizitatea**: Kaittin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa**: Ikerne Altube (Tel.: 79 02 26) **Diseinua**: Goio Arana. **Kolaboratzaileak**: Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran,Xabier Letona, Karmele Perez, Kopi, Jon Ozaeta, Birginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna**: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).
ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkiak:**
Sebastian Lozano eta Goio Arana.

*Arrasateko Udalaren laguntzaz*
*Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz*
*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz*

## 370. zenbaki honetan

*1997ko uztailaren 4an*

*Asteko agenda* ........**4/5**
*Irakurlea idazle* ..........**6**
*Inkesta* ......................**7**
*Euren ikuspuntutik* ..........**8**
*Orain eta hemen* .**10/11**
*Txutxumutxuak*........**12/13**
*Asteko gaia* ........**15/17**
*Kirolak jokoan*.....**18/19**
*Kulturaren txokoa* ..**20/21**
*Azoka plaza* ........**22/23**
*Denborapasak* ..........**24**
*Ikusi eta entzun* ........**25**

*Ikuspegia*
**Amaia Jauregi-Arraburu** ............**3**
*Euren ikuspuntutik*
**Asun Agiriano** ............................**8**
*Kirolak jokoan*
**Uribe auzoko futbitoa**...............**19**
*Kulturaren txokoa*
**"RIP • Versiones" CD berria**......**20**
*Asteko gaia*
**Suak hondatutako baserriak**............................**15/17**



**Urtarrilean erre zen Barajuengo Bentamotz baserria. Su garrek kiskalita utzi zuten baserria, baina bertan bizi zirenek berriro eraikitzeko asmoa dute.**

# 4 ostirala

**■ ZINEA**

*Pasajes*. Alai zineman 7etan eta 10etan.

**■ ITURBIDE EGOITZAKO UDAKO EKINTZAK**

Al Andalus taldearen emanaldia egoitzan daudenentzat arratsaldeko 6etan.

**■ KONTZERTUA GAZTETXEAN**

Taldeak: Iskanbila, APC eta Slamtilt. Azken biak Berlingoak dira eta Punk-Hard Core musika jotzen dute. Gaueko 9etan Arrasateko Gaztetxean.

**■ ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN**

Gaztegay taldearen *La matanza* antzezlana gaueko 10.30etan Amaia antzokian. Sarrera 500 pezeta eta gazte txartelarekin 300 pezeta.

**■ DROGAREN ERABILERA OKERRAREN ETA MENPEKOTASUNAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Drogazaleen familiartekoek antolatutako eguna Eskoriatzan. Arratsaldeko 6.30etan giza-katea trikitilari eta hankaluez. Ondoren alkateak manifestu bat irakurriko du. 7ak aldera Gorosarri dantza taldearen emanaldia. Jarraian bertsolariak eta Eskoriatzako bandaren kontzertua. Ekintza guztiak Eskoriatzako Herriko plazan.

**■ BENITO LERTXUNDI**

Aramaioko Bentamotz baserriaren alde, Aramaioko kiroldegian, Benito Lertxundiren kontzertua. Gaueko 10etan. Sarrera: 1.500 pta.

# 5 larunbata

**■ ZINEA**

*The Relic*. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**■ ROCIO EGUNA**

Goizeko 8.30etan ongietorria. 9etan Al Andalus lokalean bertako abesbatzak *Salbe Rociera* abestuko du. 9.15etan Udalara erromeria. 12.30etan Udalako parrokian meza Rocieroa. 2.20etan herri bazkaria. 4.30etan lore eskaintza Amabirjinari. 5etan taldeen emanaldia. 10etan Amabirjinaren jeitsiera Al Andalus kultur etxera. 11.30etan jaiaren jarraipena lokalean.

**■ ARAMAIOKO JAIAK**

Arratsaldeko 4etan, lagun arteko futbito eta saskibaloi partiduak frontoian. 6etan briska, mus, eta tute txapelketen finalak jubilatuen lokalean. 7.30etan bertsolariak zineman. Ilunkadan txarangak herriko kaleak alaituko ditu. 10etan, pilota finalak kiroldegian. 10.30etan dantzaldia Egan taldearekin.

**■ PEDRO GUENETXEA MEMORIALA**

Bigarren urteko kadeteendako txirrindulari lasterketa Aretxabaletan arratsaldeko 4etan. Ibilbideak 60 kilometro ditu eta Durana kalean hasiko da. Antolatzailea UDA kirol elkartea.

# 6 igandea

**■ ZINEA**

*The relic*. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**■ ARAMAIOKO JAIAK**

Eguerdiko 12etan meza nagusia. Arratsaldeko 4.30etan haurrendako jolasak. Arratsaldeko 6etan plater tiraketa Kurtzetan. Gaueko 11etan Gozategi taldearekin dantzaldia.

# 7 astelehena

**■ ZINEA**

*The relic*. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

**■ KONTZERTUA ARAMAION**

Arrasate Musikalen kontzertua Aramaioko Ibarran arratsaldeko 6etan.

**■ ARAMAIOKO JAIAK**

Eguerdiko 12etan meza herriko hildakoen alde. 12.30etan umeendako antzerkia. Arratsaldeko 4etan rokodromoa eta puzgarriak. 10.30etan Arkaitz taldearekin dantzaldia.

# 8 asteartea

**■ ZINEA**

*The relic*. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

# 9 asteazkena

**■ AHTren AURKAKO TALDEAREN DEIALDIA**

Abiadura handiko trenbide sarearen lurralde planaren kritika txostena azaldu eta aurkeztu den alternatibaren azalpena. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Arrasateko AHTren Aurkako Asanbladak antolatuta

# 10 osteguna

**■ ZINE KLUBA**

*El dia de la bestia*. Monterrongo parkean gaueko 10.30etan. Sarrera 400 pezeta eta gazte txartelarekin 350 pezeta.

**■ ERAKUSKETA HARRESI ARETOAN**

Arrasate XX. mendean zehar "Teknologia eta gizarte aldaketa Arrasaten" erakusketa Harresi aretoan uztailaren 15a arte. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

**■ ERREMINTEN MEKANIKAZIOARI ETA FABRIKAZIOARI BURUZKO IKASTAROA**

Ikastaroa profesionalki gaitu gabeko langabetuei eta langabezian denbora luzea daramatenei zuzenduta dago, batez ere IEE, BBB, LH-1 eta LH-2ko ikasketak egin dituztenei. Izena emateko Aretxabaletako Institutora zuzendu uztailaren 11a arte. Ikastaroa irailaren batean hasiko da, 500 orduko iraupena du eta arratsaldez emango da. (Tel: 79 79 00).

**■ ANTZERKIA HERRIKO PLAZAN**

Uztailaren 11n Ekekei taldearen *Fumantxu Gernikako arbolaren gerizpean* antzezlana Herriko plazan gaueko 10.30etan.

**■ ARGAZKI LEHIAKETA**

Gaiak: Langabezia, lan munduaren prekarizazioa eta etxebizitzen arazoa. Gazte guztiek har dezakete parte, nahi beste argazki bidaliz. Argazkiak edozein tamainakoak izan daitezke eta gaitzizen edo lema batekin izenpetutako sobre itxi batean bidali beharko dira Gazte Bulegora (Biteri etorbidea,3) edota Hitza eta Ekintzako lokalera (Azoka kalea, 1). Lanak uztailaren 11a baino lehen bidali.



**GOZATEGI TALDEA ARAMAIOKO JAIETAN**

Igandean, uztailaren 6an, Gozategi taldearen dantzaldia izango da Aramaioko plazan gaueko 11etatik aurrera. Larunbatean, berriz, Egan taldeak eskainiko du dantzaldia 12etatik aurrera, eta astelehenean Harkaitz taldearen txanda izango da. Gaur hasi eta astelehenean amaituko dira Aramaioko jaiak.

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

TXOKO TABERNA
Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

MARIANO ANDRADE SIGANO
TAXIA
24 orduko zerbitzua
Hotelak / Aireportua / Ospitaleak...
Tel.: 79 96 87 • Tfno mobila: (907) 75 23 85
Anboto, 2-4 ezk. ARRASATE

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

Pavimentos AGR
EGURREZKO AROZTEGIA
Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE
Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

# TOUR PORRA MUNDIALA!

**OINARRIAK**

**1.** Parte hartzeko orrialdearen behealdean dagoen **txartela** bete, ebaki eta **Arrasate Press edo Arrasate Telebistara bidali edo ekarri beharko da, uztailaren 9a baino lehen**. Porra ostegunean, 10ean, jarriko dugu martxan.

**2.** Pertsonako txartel bakarra onartuko dugu. Beraz, etxeko denak edo kuadrilan jokatu nahi izanez gero, fotokopia atera beharko duzue.

**3** Taldekako etapak ez dira kontuan hartuko.

**4.** Egunen batean bi sektoreko etaparen bat egonez gero, bi etapa balira bezala hartuko dira.

**5.** Etapa bakoitzeko maillota bat banatuko da eta Porraren irabazleak Lizarralde Kirolakek oparitutako Mendiko Bizikleta eramango du.

MAILLOT BAT EGUNERO

ETA PORRAREN

IRABAZLEARENTZAT

MENDIKO BIZIKLETA BAT,

**LIZARRALDE KIROLAK**-EN

ESKUTIK!!

**Telekom**
1 Bjarne Rijs
2 Rolf Aldag
3 Udo Bolts
4 Christian Heen
5 Jens Heppner
6 Mario Kummer
7 Georg Totsching
8 Jan Ulrich
9 Erik Zabel

**Mapei**
11 Johan Musseuw
12 Carlo Bomans
13 Oscar Camenzind
14 Valentino Fois
15 Daniele Nardello
16 Wilfred Peeters
17 Andrea Taffi
18 Tom Steels
19 Frank Vandenbroucke

**Polti**
21 Luc Leblanc
22 Dirk Baldinger
23 Rosano Brassi
24 Iñigo Chaurreau
25 Mirco Crepaldi
26 Gerrie de Vries
27 Mirko Gualdi
28 Daisuke Imanaka
29 Sergei Outschakov

**Batik**
31 Eugeni Berzin
32 Simone Bertoletti
33 Ivan Cerioli
34 Bruno Cenghialta
35 Francesco Frattini
36 Armin Meier
37 Nicola Minali
38 Jon Odriozola
39 Gianluca Pierobon

**Banesto**
41 Abraham Olano
42 Marino Alonso
43 Jose Luis Arrieta
44 Manuel Beltran
45 Santi Blanco
46 Angel Luis Casero
47 Armand de las Cuevas
48 Jose Maria Jimenez
49 Orlando Rodrigues

**Rabobank**
51 Erik Breukink
52 Michel Boogerd
53 Danny Nelissen
54 Erik Dekker
55 Patrick Jonker
56 Jan Koerts
57 Peter Luttenberger
58 Rolf Sorensen
59 Leo Van Bon

**Casino**
61 Rolf Jaermann
62 Pascal Chanteur
63 Jacky Durand
64 Alberto Elli
65 Arturas Kasputis
66 Jan Kirsipuu
67 Rodolfo Massi
68 Marco Saligari
69 Christophe Agnoluto

**Cofidis**
71 Tony Romminger
72 Frankie Andreu
73 Laurent Desbiens
74 Philippe Gaumont
75 Nicolas Jalabert
76 Bobby Julich
77 Kevin Livingstone
78 Christophe Rinero
79 Ciryl Saugrain

**Roslotto**
81 Andrea Ferrigato
82 Viatcheslav Djavanian
83 Marco Fincato
84 Alexandre Gontchenkov
85 Vitalj Kokorine
86 Pavel Pardnos
87 Daniele Sgnaolin
88 Massimo Strazzer
89 Marco Zen

**Maglificio**
91 Fabio Baldato
92 Michele Bartoli
93 Alessandro Bertolini
94 Michele Coppolillo
95 Carlo Finco
96 Fabio Fontanelli
97 Angelo Lecchi
98 Nicola Loda
99 Roberto Pistore

**Saeco**
101 Ivan Gotti
102 Angelo Canzioneri
103 Francesco Casagrande
104 Massimo Donati
105 Jean Mateo Fagnini
106 Giorgio Furlan
107 Massimiliano Lelli
108 Silvio Martinello
109 Mario Scirea

**Once**
111 Alex Zulle
112 Iñigo Cuesta
113 Alberto Leanizbarrutia
114 David Etxebarria
115 Marcelino Garcia
116 Aitor Garmendia
117 Laurent Jalabert
118 Diaz de Otazu
119 Mikel Zarrabeitia

**Tvm**
121 Jeroen Blijlevens
122 Michael Andersson
123 Johan Capiot
124 Martin Den Bakker
125 Bo Hamburger
126 Tristan Hoffman
127 Laurent Roux
128 Jesper Skibby
129 Peter Van Petegem

**Gan**
131 Chris Boardman
132 Frederic Moncassin
133 Stuart O'Grady
134 Eros Poli
135 Gerard Rue
136 Francois Simon
137 Scott Sunderland
138 Cedric Vasseur
139 Henk Vogels

**La francaise des jeux**
141 Maximilian Sciandri
142 Thomas Davy
143 Mauro Giannetti
144 Frederic Guesdon
145 Stephan Heulot
146 Xavier Jan
147 Andrea Peron
148 Davide Rebellin
149 Eddy Seigneur

**Festina**
151 Richard Virenque
152 Gianluca Bortolami
153 Laurent Brochard
154 Laurent Dufaux
155 Joona Lauka
156 Christophe Moreau
157 Didier Rous
158 Marcel Wust
159 Neil Stephens

**Kelme**
161 Fernando Escartin
162 Paco Benitez
163 Hernan Buenahora
164 Francisco Cabello
165 Ignacio Garcia Camacho
166 Chepe Gonzalez
167 Arsenio Gonzalez
168 Jose Angel Vidal
169 Jose de los Angeles

**Lotto**
171 Djamouline Abdoujaparov
172 Peter Farazjin
173 Laurent Madouas
174 Jo Planckaert
175 Renolf Salmon
176 Andrei Tchmil
177 Andrei Teteriouk
178 Paul Van Hyfte
179 Marc Wauters

**Mercatone**
181 Marco Pantani
182 Marco Artunghi
183 Sergio Barbero
184 Simone Borgheresi
185 Dario Bottaro
186 Stefano Checchin
187 Davide Dall'olio
188 Stefano Della Santa
189 Beat Zberg

**Us Postal Service**
191 Viatcheslav Ekimov
192 Adriano Baffi
193 Darren Baker
194 Dariusz Baranowski
195 Tyler Hamilton
196 George Hincapie
197 Peter Meinert
198 Jean Cyril Robin
199 Sven Teutenberger

**Mutuelle**
201 Jean Francois Anti
202 Blaise Chauviere
203 David Delbieu
204 Jean Philippe Dojwa
205 Gordon Fraser
206 Frederic Gabriel
207 Fabrice Levin
208 Sthepane Lueff
209 Laurent Pillon

**Big Mat**
211 Pascal Lino
212 Miguel Arroyo
213 Ludovic Auger
214 Thierry Bourguignon
215 Herve Bousard
216 Gilles Talmant
217 Laurent Genty
218 Thierry Gouvenau
219 Pascal Lance

Izena ................................ **Tour Porra Mundiala**

Helbidea ................................ Tel. ....................

| DORTSALA | TXIRRINDULARIAREN IZENA |
|---|---|
| 1 | |
| 2 | |
| 3 | |
| 4 | |
| 5 | |
| 6 | |
| 7 | |
| 8 | |
| 9 | |
| 10 | |
| 11 | |
| 12 | |
| 13 | |
| 14 | |
| 15 | |

# Inpresiorik egin dizu Ortega hemen aurkitzeak?



**Julian Biteri**
**Jubilatua**
**(60 urte)**

Ez nuen espero Arrasaten egotea. Martxa honetan, Arrasatek zer fama hartuko duen jakitea komeni zaigu orain.



**Maite Perez**
**Etxekoandrea**
**(39 urte)**

Kalean Guardia Zibila ikusi eta Ortega aurkitu zutela entzun nuen. Notiziak harrituta utzi ninduen. Oso arraroa iruditu zitzaidan.



**Jose Maria Mercader**
**Zerrajerako langilea**
**(40 urte)**

Nork pentsatuko hemen egon zitekeela. Gure herrirako propaganda ederra!



**Rakel Ruiz**
**Etxekoandrea**
**(43 urte)**

Eroskin enteratu nintzen Ortega eta Delclaux-enaz. Ortegarenak zertxobait harritu ninduen.



**Victor Manuel Marcos**
**Langilea**
**(21 urte)**

Berriekoa naiz baina hemen ibiltzen naiz egunero. Egia esan ez nuen espero Arrasaten egongo zenik.



**Amaia Arroio**
**Ikaslea**
**(14 urte)**

Badakigu hemen HBko asko daudela baina ez nuen espero Ortega Arrasaten egotea.



**Jesus Romero**
**Kamareroa**
**(33 urte)**

Apur bat inpresionatu ninduen San Andresen bizi izan naizelako, baina lekuren baten eduki behar zuten.



**Blanka Zufiria**
**Langilea**
**(27 urte)**

Lehen Umezaintzan egiten nuen lan eta ez nuen pentsatu bertan egon zitekeenik. Asteartean pasiatzera joan eta mugimendu dena ikusita ez nuen espero Ortegagatik izatea.





ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 79 22 55 79 14 25

**USTEAK USTE**

## *Alardetik zulora*

**Astean zehar apartekorik gertatu ez zela eta, telebista aurrean jarri nintzen astelehen gauean Irungo Alardea ikusteko asmoz, gero zer idatzi izango nuelakoan. Lo saioa egin, Euskaldunon Egunkaria irakurriz gosaldu eta lasai-lasai sartu nintzen autoan. Irratia martxan jarri orduko enteratu nintzen Delclauxen eta Ortega Lararen askatasunaren kontuaz.**

**Uniforme berdedunez, telebista kamarez, eta kazetariz inguratuta pasa dut astearte osoa San Josepen, zurrumurruak nonahi eta zigarroak bata bestearen atzetik. Han geunden denok, itxura penagarrian agertu zen Ortega Larak pozik asko utzitako zuloan sartzeko gogoz. Horrelako batean Mayor Oreja dator, poliziez inguratuta, eta borrokan hasi behar, mikroa nork gertuago jarri. Bisita, bi hitz eta joan da.**

**Eta, zerbait gertatu da? Bi familia pozik, beste lau etsipenak jota, poliziaren arrakasta kasu batean, besteak ordaindu egin du... ez da oinarrian ezer aldatu. Alardean ere, iaztik hona, ezer gutxi aurreratu da.**

**Beñardo Kortabarria**



# Biblioporrak 97

**Asun Agiriano**

Oporrak... hau gauza ederra mendian edo hondartzan ibiltzeko!

Liburuak... bai asmakizun ona mundu eta pertsonaia berriak ezagutzeko!

Sosegua... hitz polita lasai eta trankil egoteko aukera ematen digulako!

Eta hiru berba magiko hauekin merienda goxua prestatu dugu aurtengo udan dastatzeko: biblioporrak!!

Oraingoan, itxuraz aldatuta datorkigu, Iñaki Garmendia ilustratzaile aretxabaltarraren diseinu berri eta koloretsuaz.

Bertan, inurriek ere maleta egin eta badoaz beste inguru batzuekin gozatzera! Haurrak gaztetu egiten diren lez, gazteak heldu bihurtuko dira urtaro honetan, liburu on baten laguntzaz haztea errazagoa izan daitekelako. Horrela, konpainia honetan, guztiok dugu ondo igarotzeko aukera: irakurtzen dakitenak edo, oraindik, gurasoen babesa behar dutenak, euskarazko zein gaztelerazko liburu serioagoekin edo alaiagoekin... denek dute tokia liburuen unibertsoan!

Bailarako liburuzainok aukeraketa egin ostean, ondoko herriko biblioteka guztietan duzue, beraz, Biblioporrak 97 liburu gomendagarrien gida.

Eta gida horretan denetarik aurkitu ahal izango duzue. 6 urtera arteko haurrak bazarete, kolorez eta irudiz betetako liburuskak aukeratu dizkizuegu. 6 urtetik aurrerakoentzat berriz, ipuin bilduma zoragarria, betiko ipuinetatik hasi eta *Pintto*ren ipuineraino. 8 urtetik aurrekoentzat, beste hainbeste, *zuhaitz gaineko txabolatik ilargira* iristeko modukoak. Modu berean, haurrentzat bezala, gazteentzat ere aukeraketa polita egin dugu: *sorgin-tren berdearen misterioa, El libro del verano, Pipi itsasorako asmotan*.... Eta 14 urtetik gorakoentzat, klasikoez gain, titulu ugari: *Gauez ate joka datozenean, Lo que no sabemos, Zeru urdina, Bihotz ausarta*.... Ah! eta ez pentsa helduekin ahaztuta gaudenik, bilduma ederra egin dugu eta, bertako eta kanpoko idazle ugari kontuan hartuta: *Tuparen seme-alabak, Kalamidadeen liburua, Olvidado rey Gudú, El hada carabina, Bihotz bi, Galdu arte*.... Titulu denen artean, eskura ezazu zeurea!

> **“Guztiok dugu ondo igarotzeko aukera, denok dugu tokia liburuen unibertsoan!”**

Asun Agiriano
Monterron Liburutegiko bibliotekaria da

Gili Gili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

FELIPE MADINA
ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 79 13 78

## astea bi hitzetan

### Txatxilipurdiren udalekuak hasi

Astelehenean eman zitzaien hasiera Txatxilipurdi elkarteak antolatutako udalekuei. Astelehenean udaleku irekiak eta babylekuak hasi ziren. Guztira 450 gaztetxok parte hartuko dute udaleku horietan, eta lehenengo hamabost egunez iraungo dute. Astearten, bestalde, bi eta hiru urteko haurrendako Bilin-Bolonka izeneko udalekuak ireki ziren 25 umerekin. Bukatzeko asteazkenean, Garaiora joan zen hainbat gazte. Hilabete osoan zehar 80 gazte pasako dira Garaiotik.

### Uharkaperen inguruko erabakiak

Uharkapeko pilotalekua egiteko arkitektuarekin eta hainbat aparejadorerekin zuen kontratua bertan behera utzi nahi du Udalak. Indemnizazio modura, arkitektuari 293.000 pta. eta aparejadoreei bezain beste emateko gertu dago Udala. Hala ere, aparejadoreek lehendik zazpirehun mila pta. jasoak zituztenez, laurehun mila bueltatzea eskatu die Udalak. Orain ikusi egin behar bi aldeek begi onez ikusten duten Udalaren proposamena.

Pilotalekuaren proiektua aldatu egin denez, berriro ere obrak adjudikatu beharko dira lehiaketa bidez.

### Ohe elektriko gehiago

Udalak beste bi ohe elektriko erosi ditu Iturbide egoitzarako, 196.000 pezetagatik. Erosketa berriarekin 10 ditu dagoeneko.




### CCOOkoek GOSE GREBA BUKATU

Astebeteko gose greba egin ondoren, joan den zapatuan bukatu zuten barauldia CCOO sindikatuko Ezker Sindikalista korronteko 12 kideek. Presoen Euskal Herriratzea eskatzeko egin zen gose greba herriko plazan egindako ekintzekin eta manifestazio batekin bukatu zen.

*"Santi Bengoa lagunari*

*... guretzat oso garrantzitsua den erreflexio baten berri eman nahi dizuegu: gure sindikatua ezin da itsu izan gure herriak bizi duen egoera sozial, sindikal eta politikoaren errealitatearen aurrean. Errealitate hori ikusi nahi ez izateak, eragozten digu ondo kokatzea gure nazio markoaren barruan, eta etorkizunari begira trabak jartzen dizkio sindikatuaren ezarpenari eta garapenari. Eta jakin, gura duzunerako, sindikatuan egongo garela hilaren 28an Arrasateko Udala utzi eta gero.".'*

*Iñaki Uribarri, Maite Oñate eta Langile Komisioen ezker sindikaleko beste 10 lagun gehiago.*

*Egin*
1997-7-30


LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

# Ortega Lara Arrasaten aurkitu ondoreng herritarren artean, jakin mina, sei atxil

San Josepe auzoan dagoen Jalgi CB izeneko lantegian aurkitu zuen guardia zibilak Ortega Lara astearte goizean. Espetxe funtzionarioa lau lagun atxilotu ondoren aurkitu zuten. Arrasaten Josu Uribetxebarria, Xabier Ugarte Oñatin, Jose Luis Erostegi Antzuolan eta Jose Migel Gaztelu Bergaran atxilotu zituen guardia zibilak goizaldeko 3.30ak inguruan. Lau lagunek Ortega Lara aurkitu zuten pabiloia zuten alokatuta. Orain dela zortzi bat urte alokatu zuten pabiloia, eta hasiera batean makinak konpontzeko erabili arren, azkenaldian ez zuten lanerako erabiltzen.

Ustezko lau ETAkideak bakoitza bere etxean atxilotu zituzten, eta Amnistiaren aldeko Batzordeak salatutakoaren arabera, atxiloketak bortizkeria erabiliz eta inolako agindu barik egin ziren. Komunikabide batzuk plazaratutako informazioaren arabera, Josu Uribetxebarria lantegira eraman zuten Ortega non zegoen esan zezan, baina arrasatearrak une oro espetxe funtzionarioa han zegoenik ukatu ei zuen. Guardia Zibilak ikertzen jarraitu, eta Ortega bahituta zegoen zuloa aurkitu zuen goizeko 6.30ak aldera. Zuloa torno baten azpian zegoen, eta sistema hidrauliko konplexua ei du barrura sartzeko. Albistea idazterako orduan komunikabideei ez zitzaien oraindik zuloa ikusteko aukera eman.

Atxilotuak, bestalde, Madrilera eraman zituzten eta inkomunikatuta egongo dira domeka arte.

Ortega Arrasaten aurkitu izanak harridura sortu zuen San Josepeko bizilagunen, inguruan lan egiten zutenen eta orokorrean arrasatear guztien artean. "Nork pentsatuko zuen hemen zegoenik" horixe izan da astean herrian gehien entzun den esaldia.



Josu Uribetxeberria arrasatearra

### ATXILOKETAK ETA MOZIOA

Mayor Orejak jakinarazitakoaren arabera, garrantzizko informazioa aurkitu zuten lantegian, eta esan zuen, hurrengo egunetan atxiloketak egon zitezkeela.

Ostegun goizaldean beste arrasatear bat atxilotuzuten: 47 urteko Emilio Arrizabalaga. San Andres auzoko Doctor Bañez 1ean bizi da Emilio. Atxiloketak direla eta, udaletxean mozio bat aurkezteko asmoa dago, baina lerrook idazterako orduan mozioa prestatzen ari ziren, eta ez zegoen jakiterik mozioa noiz aztertuko den, gaur (ostiralean) edo datorren astean.




San Josepe auzoan dagoen Jalgi CB izeneko lantegian egon da bahituta Ortega

## Jaime Mayor Oreja zuloa ikustera etorri zen

Astearte arratsaldean Mayor Oreja, Espainiako Barne ministroa etorri zen zuloa ikustera. Arrasatera helikopteroz iritsi ondoren, autoz urreratu zen San Josepera.

Zuloa ikusitakoan, Mayor Orejak esan zuen, pertsona bat horrelako egoeran edukitzeak erakusten dutela nork eta nola torturatzen duen herri honetan. Barne ministroak goizean prentsaurrekoa eman zuen Ortega Lara zein egoeratan egon zen esateko, baina zuloa ikusi ostean goizeko adierazpenetan motz geratu zela azpimarratu zuen.



# g egunetan: harridura keta eta mobilizazioak







Orain dela zortzi urte inguru alokatu zien Pedro Zuraidek Jalgi jartzeko pabiiloia atxilotutako hiruri.






Inguruko bizilagunek esan zutenez guardia zibil askok hartu zuen parte Ortega aske uzteko operazioan. Goizak aurrera egin ahala guardia zibilen kopurua gutxitu arren, goizaldean ehundaka egon ei ziren. Gainontzeko egunetan, bestalde, tokia zaintzen izan ziren guardia zibilak.




Asteartean asanblada eta manifestazioa egin ziren Arrasaten, Amnistiaren aldeko Batzordeak deituta. Asanbladan esan zenez, lau atxiloketak bortizkeria erabiliz egin ziren. Bestalde, presoen Euskal Herriratzea lortzeko hemendik aurrera lan gehiago egin beharko dela esan zuten.



## ERROMAKO SAN PEDRORA

San Pedro plazan atera zuten argazki hau Famili eta Gizarte Hezketarako Zentroko emakumeek. Ekainean egon ziren Italian 40 lagunak, eta ederto ibili ei ziren. Italia handia denez Erroma, Florentzia eta Napoles bisitatu zituzten oraingo honetan.



## TXERNOBILGO UMEAK GURE ARTEAN

Sasha, Irina eta Anastasia, horretxek aurten Txernobil elkartearen eskutik Arrasatera etorri diren haurrak. Oraindik ez daramate astebete gure artean, baina dagoeneko ondo baino hobeto dabiltzala aitortzen dute. Ez eurak bakarrik, harrera egin dieten familiak ere oso gustora daude eta. Arazo bakarra hizkuntzarena, keinuen bidez moldatu behar!


SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94

"PAL"
burdindegia, brikolage eta tresneria
Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 79 31 99 ARRASATE

Aldi bi
Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02
ARRASATE

# GU GUZTIOK MUSEAN JOKATZEN

Fin ari dira emakumeak musean. Joan den domekan mus txapelketa jokatu zen Jokin Zaitegi plazan, eta 16 bikotek parte hartu zuten. Arrasatetik ezezik, Mendaro, Oñati eta Bergaratik etorri ziren emakumeak. Irabazleak Carmen Kabiketa eta Lurdes Igartua izan ziren. Ohiturari jarraituz maisuarekin atera zuten argazkia: Roman Lopezekin.





# IZENAK

## Ane Lopez de Bergara eta Esther Gomez

arrasatearrak Aletadun Igeriketako Euskadiko txapeldun berriak dira, joan den asteburuan Tolosan burututako txapelketa irabazi eta gero. Ane Lopez de Bergarak 400 eta 800 metroko probak irabazi zituen, eta Esther Gomezek 1.500ekoa. Biak Bartzelonan izango dira asteburu honetan, estatuko txapelketan parte hartzen.



# REALEKOEKIN BATERA

Musakolako Institutuko DBHko ikasleek ikasturteari ganorazko bukaera emateko bidaia bat antolatu zuten. Bi egunetan Hondarribia, Hendaia eta Anoeta ezagutu zituzten. Anoetan nola ez! Realeko jokalariekin izan ziren eta ze gustora gainera?

**Rent a Car**

Alkilerreko autoak.
Eta orain
TRAFIC eta EXPRES

MECA

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12




# LORAMENDIN

**Bainujantzia aukeratu, eta Travel-arekin bidaiatu!**

**1.000 pezetako 10 puntu!**

# ARGI PLASTIC

*Tailerra eta bulegoa: Zigorrola, 1-8 pabiloia*
*Tel.: 77 11 30 • ARRASATE*









- **PVC eta aluminioan egindako leihoak, manparak...**
- **Lantegitik zure etxera zuzenean.**
- **Zerbitzu profesionalena.**

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik!**



**Urtarrilaren 26an erre zen Aramaion Bentamotz baserria. Suak kiskalita utzi zuen baserria.**

# Suak hondatutako baserriak

**Etxea sutan ikusteko zorigaitza izan dutenendako, zaila da sutearen unean zer sentitzen den adieraztea. Inpotentzia, urduritasuna, norberaren biziaren zati bat galtzen denaren sentsazioa... Urteetan zutik egon dena sute batek aitaren batean suntsi dezake, eta momentu horrek ez du gozoa izan behar. Batzuetan lagun izaten dugu sua, baina beste batzuetan gure etsai bihur daiteke.**

Gaur egun ziur aski suari aurre egiteko tresna eta bide gehiago egongo da, baina oraindik ere bereak egiten ditu suak. Batzuetan etxeak, eta beste batzuetan baserriak jartzen dira sutan.

## EHNEren AHOLKUA

EHNE sindikatuan ez dakite zehatz-mehatz urtean zenbat baserri erretzen diren, baina hamarren bat izaten direnaren susmoa dute. Erretzen diren baserriendako sindikatuak ez du laguntza zuzenik, baina horrelakoetan baserria aseguratuta eduki beharra gogorarazten dute.

Juan Inazio Azpitarte, EHNEeko kideak esan bezala, baserri batek etxe batek baino arrisku handiagoa du, eta horregatik, ezinbestekoa da asegurututa egotea. Azpitarteren esanetan, "baserria aseguratu behar da eta ondo aseguratu gainera. Kontratu asko bizkor eta ondo zehaztu barik egiten da, eta ondoren sortzen dira arazoak. Aseguruan ondo zehaztu behar da baserriko zati bakoitzak zein balio duen. Horrez gain, aseguru batzuk orain dela urte asko egindakoak direnez, horiek eguneratzea ere garrantzitsua da". Gai horri dagokionez, EHNE sindikatuak hitzarmen bat egi-

na du aseguru konpainia batekin, eta konpainia horren asegurua dute Gipuzkoako 2.000 baserrik. Azpitartek dioenez, beste askok oraindik aseguru barik jarraitzen dute.

EHNEkoak aipatu bezala, batzuetan suak eragiten ditu zorigaitzeko istripuak baina ez da ahaztu behar istripuen beste eragile batzuk ere izaten direla: uholdeak, haizeteak, abereek eragindako kalteak...

Inguruan aurten bi baserri erre dira: bata Udala auzoan, eta bestea Aramaion. Suak kalteak baserri bietan eragin ditu baina batez ere bigarrena, Bentamotz izenekoa, geratu da hondatuen. Tamalez, azken hori aseguratu barik zegoen gainera. Hainbat urtez baserria alokatuta eduki eta gero, iaz erosi eta jabe berriei ez zitzaien burutik pasa Bentamotz aseguratzea.

Udalakoa, berriz, aseguratuta dago baina arazoren bat edo beste badute aseguru etxearekin. Itxura denez, ganbara aseguratu barik zegoela dio konpainiak.

Zalantzarik ez, aseguruarena ondo lotu beharreko gaia da.

**BENTAMOTZ**

Bentamotz Barajuen auzoa eta Aramaio artean dago, eta sugarrek urtarrilean kiskali zuten baserria. Zorionez edo tamalez, batek daki, baserrian ez zegoen inor istripu larria gertatu zenean. Bertako kideek arratsaldeko 7.30etan aldegin zuten baserritik, eta etxea sutan aurkitu zuten bi ordu beranduago bueltatu zirenean. Urtarrilak 26 egun bete zituen egun hartan, gainera, eraso baten ondorioz Aramaio telefono linea barik geratu zen. Suhiltzaileak gaueko 10ak inguruan heldu ziren Bentamotzera.

Esan beharrik ez da izango, baina Bentamotzen bizi ziren senar emazteendako benetan gogorra izan zen tragedia harekin topo egitea. Ordutik hilabeteak pasatu eta gertakaria gainditzen ari dira, baina emazteak ezin dio negarrari eutsi egun beltz hura gogoratzen duenean.

Etxekoandreak, Asun Lopez de Bergarak azaldu bezala, su bajua larregi berotu izanak piztu zuen sua. Urtebete eskas zen su bajua jarri zutenetik, eta egun hartan haize handirik ez zebilenez, tuberiatik goiko solairura beroa pasatu eta ganbaran zeuden egurrek su hartu zutela uste dute. Ondorioz ganbara, teilatua eta goiko solairuko logelak suaren menpe geratu ziren. Bi solairuak banatzen dituen hormigoizko kapa bati esker, berriz, beheko solairuko gelatara, sukaldera eta kortara ez ziren sugarrak iritsi.

Asunendako eurei ezer ez gertatu izana da garrantzitsuena, baina gauza asko erre zitzaien. Ganbaran denetik zuten: bost armairu bete-beteta, ortua lantzeko eta bedarra mozteko tresnak, traktorea... berriro erosiz berreskura daitezkeen gauzak gehienak. Buruhauste gehiago ekarri die, ostera, erretako dokumentuak egiteak, eta ezinezkoa izango zaie balore sentimental han-



Ekainaren 8an sua piztu zen Arteta baserriaren ganbaran.

## Euskal Herriko Nekazarien Elkartearen

## "Baserria aseguratu behar da eta ondo eta ondo zehaztu barik egiten dira, eta zehaztu egin behar da baserriko zati ba





**Asun Lopez de Bergara Bentamotz baserrian jaio eta bizi zen.**

dia dutenak berreskuratzea: argazkiak eta oroigarriak. Normala denez, lehen asteak galdutako gauza horietan pentsatzen jardun zuten.

### BERRIRO ERAIKI NAHI

Asko izan dira modu batera zein bestera Bentamotzeko senideei lagundu dietenak. Horregatik, lerro hauek aprobetxatu nahi izan ditu Asunek guztiei eskerrak emateko. Ez du ahazten, gainera, baserria sutan zegoela hainbat lagunek egindako lan arriskutsua. Horiei esker sukaldeko eta egongelako tresna asko atera ei ziren. Sutearen osteko egunetan, bestalde, aramaioarrek auzolana egin zuten baserria garbitzeko.

Istripua gertatu zenetik ezer gutxi egin da Bentamotzen, baina baserria berriro jasotzeko proiektua eskuartean dute, eta horri heltzeko gogoz daude. Arkitektuaren arabera, 250 eta 300 urte inguru duten hormak egoera onean daude, eta beraz, ez da guztiz botako. Hala ere diru aldetik obra garrantzitsua izango da, eta horri aurre egiteko herritarren laguntza jasotzen ari dira. Martxoan zozketa bat egin zen, eta gaur, uztailak 4, Benito Lertxundik jaialdia eskainiko du Aramaion. Rosa Mari Kortabarriak, Aramaioko Udaleko kultura teknikariak azaldu bezala, jaietan Bentamotzen aldeko jaialdia egitea erabaki eta Arabako Diputazioarekin harremanetan jarri ziren. Era horretan, jaialdiaren gastuak erdibana ordainduko dituzte Diputazioak eta Udalak, eta sarreretatik jasotzen den dirua baserriarendako izango da. Lehenago ere, Aramaioko Udalak eraman ditu aurrera beste ekimen batzuk. Batetik, bi kontu korronte zabaldu zituen herritarren laguntza jasotzeko, eta bestetik, udal batzueri dirulaguntza eskatu zieten. Batak zein besteak erantzun ona izan ei dute.

### ARTETA UDALAN

Ekainaren hasieran Udalako Arteta baserrikoei tokatu zitzaien suari aurre egitea. Istripua gertatu zenean ez zekiten garbi ganbaran hasitako sua zeren eraginez piztu zen, eta oraindik ere ez dakite. Suak, ganbara eta korta kiskali zituen baina erre ez zen zatia ere kaltetuta geratu zen. Baserri gehienetan bezala, ganbara gauzez beteta zuten Artetakoek: arropak, ontziak, telebista... Zorionez, etxekoei ez zitzaien ezer gertatu. Sutea gertatu zenetik baserria hutsik dago, eta senideak kalean daude bizi izaten.

Bentamotzekoek egin duten bezala, orain arkitektuak egingo dien proiektuari eta aurrekontuari begira daude Artetakoak. Horren zain, Udalako auzokideek oraindik ez dute erabaki zer egin. Dirua lortu asmoz, ekintzaren bat edo beste egingo dutela uste dute, baina esandakoa, arkitektuak eta aseguru etxeak zein erantzun emango duten zain daude. Orain aramaioarrek egin duten moduan, hurrengoan arrasatearrei tokatuko zaie zerbait egitea. ■

**Maria Agirre**

**aolkuak:**
**oseguratu gainera. Kontratu asko bizkor**
**andoren sortzen dira arazoak. Aseguruan**
**abitzak zein balio duen”**

# Xake mate ugari zapatuan egindako xake egunean

Xake azkarra eta aldiberekoa egon ziren jokoan zapatuan Herriko plazan. Xake azkarrean 64 partida jokatu ziren guztira. Zortzi arrasatearrek Bergarako beste horrenbesteren kontra jokatu zuten. Norgehiagoka horretan Arrasate izan zen jaun eta jabe 48 punturekin, Bergarak 16 baino ez zituen lortu. Txapelketako jokalari onena Jose Manuel Hernando izan zen, ez zuen neurketa bakarra galdu. Aldi bereko xake txapelketan Jesus Berezibar jokalariak 35 lagunen aurka neurtu zituen indarrak eta BEEP enpresak utzitako ordenagailu bat ere aurkari izan zuen. Berezibarrek 34 lagun gainditu zituen eta baten kontra parra egin. Ordenagailuaren aurrean bestalde, ezin izan zuen emaitza onik lortu.



Ondo kontzentratu behar xake matera heltzeko.

# Euskadiko squash txapelketan onenak

Ostiralean hasi eta domekara arte iraun zuen Musakolako kiroldegian egin zen Euskadiko Squash txapelketak. Finala Jose Luis Unanuek eta Jabier Gutierrezek jokatu zuten. Gutierrez bilbotarrak lautik hiru neurketa irabazi zituen txapelketa eskuratuz. Partidak 15 tantura ziren eta guztira lau jokatu behar eta bosgarrena derrigorrezkoa izanda. Arrasateko txapelduna Euskadiko Squash rankingnean lehena da eta horrez gain Euskadiko txapelduna. Orain bukatu berri den Euskal liga ere Jabierrek irabazi du.



Ander Corcuera carts munduan Arrasateko ordezkaria.

# Ander Corcuerak carts txapelketan hirugarrena

Arrasate Motozale elkarteak antolatuta carts txapelketa egin zen Eroskiko aparkalekuan domekan. Txapelketa hiru mailatan banatu zen 80 zentimetro kubiko, 100 zentimetro kubiko eta 125, 250 zentimetro kubiko. Guztien artean arrasatear bakarra Ander Corcuera. Anderrek 100 zentimetro kubikotan hirugarren postua lortu zuen. Bere aurretik Unai Castro eta Jacinto Burgos sailkatu ziren. Juniorretan onena Bilboko Jabier Lujua izan zen. 125-250 $zm^3$ mailan Jean Pierre Prigent izan zen lehena.



Jon Aranbarri Aerobic irakaslea.

# Aranbarri Aerobitonean estatuko onenetarikoa

Jon Aranbarri Saioa gimnasioko Aerobic irakaslea Sevillan izan da asteburuan Gimnasioen arteko aerobic ligan parte hartzeko. Aerobic federazioak antolatutako txapelketan arrasatearrak beste hiru lagunekin batera osatu du taldea. Donostiako Kursaal gimnasioaren izenean joan dira. Jon eta bere lagunak eurek prestatutako koreografia egin eta gero, 3. postuan geratu ziren estatu mailan emaitza bikaina lortuz. Ekainaren 12an Jon Castro Urdialesen egingo den Aerobitonean izango da bere taldekideekin batera.

# Dribling taldea jaun eta jabe Uribe Auzoa Futbito txapelketan

Ke oxtias eta Dribling taldeen arteko partidua ona bezain emozionantea izan zen. Talde biek 11 gol sartu zituzten baina azken unean atera begira trebezia handiago Driblingek erakutsi zuen eta 6 eta 5 nagusitu zen. Dena dela, Ke oxtias 5 eta 2 aurretik joan zela ere gogoratu behar. Emaitza horrekin bukatu zen lehen zatia. Partidua bukatzeko bi minutu faltan Driblingek bosnako berdinketa lortu zuen eta azken segundutan garaipenaren gola. Goleatzaileak Ke Oxtias taldean; bi gol Juanjok, beste bi Oscarrek eta bakarra Xabik eta Sergiok. Dribling talde irabazlean berriz Joseba Garaik hiru gol sartu zituen eta Rubenek bi.

Finala jokatu aurretik 3. eta 4. postuak egon ziren jokoan aurrez aurre Borrock´n Roll Promesas eta Niva Vin. Niva Vinek partidu polit batean 4 eta 3 irabazi zuen.



Finalean golak eta joko ona ikusi ahal izan zen.

## Sari banaketa

Finala jokatuta sari banaketa egin zen Iturripeko kiroldegian. Laugarren sailkatuak Borrock´n Rollek kopa eta txanpain kaxa jaso zituen. Hirugarrenak Niva Vinek kopa, txanpain kaxa eta urdaiazpikoa. Bigarrenak Ke oxtiasek kopa, txanpain kaxa, urdaiazpikoa eta 25.000 pezeta. Dribling txapeldunak kopa, txanpaina, urdaiazpikoa eta 50.000 pezeta. Finaleko jokalari onena Ke Oxtias taldeko Joseba Garai izendatu zuten.











## Atletismoko Gipuzkoako txapelketatik hiru domina Arrasatera

Arrasate Atletiko taldekoak Anoetan izan dira asteburuan Gipuzkoako absolutu mailako txapelketan parte hartzeko. Hiru domina lortu dituzte; zilarrezko bakarra eta brontzezko bi.

Arrasatearren emaitzak honako hauek izan ziren:

- Mailu jaurtiketa, Aitor Urizar, 43´60 m. Zilarrezko domina
- Disko Jaurtiketa, Asier Arroiabe, 38´88 m. Brontzezko domina.
- Altuera jauzia, Jokin Diaz de Lezana, 1´80 m. Brontzezko domina
- Disko jaurtiketa, Mikel Iturbe, 35´67 m.
- 400 m. Hesi, Juan Carlos Martin, 59"96.
- 800 m., Felix Sanchez, 2'93".
- 100 m., Unai Sarabia, 11"34.

# RIP taldea besteen ahotsetan bizirik

## Punk taldearen kantak estilo ezberdinetan entzun daitezke

Euskal Herriko hamazazpi taldek RIP talde mitikoaren betiko kantak bertsioneatu dituzte. Kanten bilduma, Shot! grabazioak kaleratutako *Versiones* cd-an aurki daiteke. Compact-a kalean dago dagoeneko eta salneurria 1.995 pezeta ingurukoa da, musika dendaren arabera.




Lan hau, Shot!-eko Où! disketxeak kaleratzen duen lehena da. Lanarekin hazten dauden musika taldeak bultzatu eta, bide batez, arrasatearrei omenaldi bat egitea izan da euren asmoa. Diskoan musika ezberdina lantzen duten hamazazpi taldek hartu dute parte. Horietako sei, arrasatearrak dira: Iskanbila, Brutal Melody, El Desvän del Macho, Elkorobarrutia, Bad F-Line eta Los Pichones. Euskadiko beste herri batzuetako taldeak aipatzearren, DUT, Mo´mau, Anestesia, edo Nuevo Catecismo Católico besteak beste. Talde bakoitzak, bere estilo musikalera moldatu ditu kantak. Funky, punk-rock, trash, pop edo abiadura handiko estiloan RIPen abestiak entzutea, benetan bitxia da. Hamazazpi kantetatik bi, euskaratutako bertsioak dira.

**MEREZITAKO OMENALDIA**

Shot!-eko langilea den Peio Aldaberen hitzetan "RIPek eskainitako kontzertuak eta saldu dituen kopiak kontaezinak dira, baina hala ere, ez dute inoiz zorte ona izan. Lan honen bidez, euren ibilbidea omendu nahi izan dugu". Diskoan parte hartu duten taldeekin lan egin dute RIP-eko partaideek. "Julek eta Txerrak Los Pichones taldeak eginiko bertsioan jotzen dute eta Karlos *Mahomak*, Elkorobarrutia taldearekin abesten du. Portuk ere diskoan parte hartu behar zuen. Bere heriotzak planak zapuztu zituen eta horregatik, bereziki berari eskaini diogu diskoa". Egile eskubideengatik jasotzen den diru guztia, RIPeko partaideendako izango da.

Diskoak, *Grito España* sekula kaleratu ez den kantua jasotzen du. Bertsioa Arrasateko Los Pichones taldearena da. Bestalde, Compact-a ordenagailuan sartu ezkero zenbait datu jaso daiteke. Multimediaren abantailak aprobetxatuta, diskoaren aurkezpen bat egiten da eta talde guztien datuak errazten dira.

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS
*"Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago"*
97/98 ikasturtea
**MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK**
**Alemana, Frantsesa eta Ingelesa.**
**Haur, gazte eta helduendako klaseak eta orain ere "MULTIMEDIA" Sistema eskaintzen dizuegu.**
**INFORMAZIOA**
*Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE*
*Tel.: 71 20 55*
*Olakua, 14 • OÑATI*
*Tel.: 71 60 00*

LAN BILA
79/0064/95 baimen zenbakiduna
**LAN ESKAINTZA**
NORI: **20 eta 30 urte bitarteko gizonezkoei**
NOIZ: **Astebukaeran eta abuztuan.**
Informazio gehiagorako dei egin edo etor zaitezte bulegora.
Otaola Hiribidea,3 • EIBAR
Tel: 20 38 71 • Faxa: 20 35 43.

RAFAEL RAYA, Al-Andaluseko lehendakari ordea

# “Euskadiko zazpi elkarte andaluziar etorriko dira Arrasateko Rociora”

**Bihar Rocioko Amabirjinaren egun handia ospatuko da Arrasaten. Goizeko 9etan salbea abestuko zaio, eta asto-karro, musika eta koloreetako soinekoen artean, erromerian igoko da Udalaraino. Euskal Herriko puntu ezberdineko andaluziarrak elkargune izango dituzte Arrasateko auzoaren zelaiak.**



**- Nola sortu zen Rocioa Arrasaten egiteko ideia?**

- Gure bizilekuan kultura andaluziarrarekin harremanetan jarraitzeko modu bat da. Rocioa oso berezia da andaluziarrentzat, milaka pertsona biltzen dituelako. La Blanca Palomak bakarrik mugiarazten ditu hainbeste andaluziar, mendian egiten den erromerian.

**- Rocioa da Al-Andalusek antolatzen duen ekintzarik garrantzitsuena?**

- Garrantzitsuena aste kulturalaren antolakuntza izaten da. Hala ere, oso bereziak diren beste batzuk ere badira, hala nola, Andaluziaren eguna, Udazkeneko Jaialdia edo Rocioa. Denak gure kulturaren manifestazioak besterik ez dira.

**- Zenbat lagun erakartzen ditu Rocioak?**

- Orain dela zazpi urte hasi ginenean, oso jende gutxi mugitzen zen. Urte batzuetatik hona, mila lagun inguru biltzen da Udalan. Aurten, Euskal Herriko beste elkarte batzuetatik zazpi autobus etorriko dira, eta horiez gain euren kabuz etortzen den jende mordoa espero dugu.

**- Zenbateko aurrekontua duzue?**

- Al-Andalus-eko egoitzatik 250.000 pezeta atera dugu. Gero bakoitzak ahal duenarekin laguntzen du.

**- Egoitza berria Musakolan dagoela eta, nola eramango duzue Amabirjina Udalaraino?**

- Aurten Udaltzaingoaren laguntza izango dugu. Errepidea ez da moztuko baina udaltzainek Musakolatik Udalaraino zabalduko dute bidea. Kanpotik datozen autobusak bideratzen ere arduratuko dira. Beraz, autoek libre izango dute bidea, baina oinez joateko deialdia luzatu nahi diogu jendeari. Musakolatik Udalaraino Rocio ikusgarria egin nahi badugu, oinez joan behar.

**- Berrikuntzarik egongo da?**

- Udalako bidean egoitza zaharrean geratuko gara, orain arte egin dugun ibilbidearen oroigarri bezala. Arratsaldean, Amabirjinari kantuz egingo zaio lore eskaintza eta gaueko 10etan asto-karro baten jeitsiko dugu. Ondoren, jaialdi rocieroa egongo da egoitza berrian gau osoan.

## “Udaltzaingoaren laguntzaz, aurten ez da errepidea moztuko.”

## aste gazte

**■ LANA**

• Elorrioko Udalak hiru lanpostu kaleratuko ditu aurten: 2 langile eta atezain bat. Epea: irailak 30.

• Aretxabaletako Udalak bi lanpostu kaleratuko ditu iraila aldera: hirigintza teknikaria eta peoi ehorzlea. Epea finkatu gabe dago.

• Irungo Udal Musika Fundazioak bi irakasle lanpostu kaleratu ditu, txirula eta biolontxelo. Epea: uztailak 17.

**■ BEKAK**

• Europako enpresetan lan praktikak egiteko bekak (Leonardo egitaraua). Epea: irailak 30.

**■ LEHIAKETAK**

• “Gazteon Bizi Baldintzak” argazki lehiaketa, Arrasateko “Korbela -Hitza eta Ekintza” elkarteak antolatuta. Txuri-beltz zein koloretan. Hiru gai: langabezia, lan munduaren prekarizazioa eta etxebizitzaren arazoa. Epea: uztailak 11.

• “Mugarik Gabeko Gazteak” VIII. argazki lehiaketa, Arrasateko Udalak eta ASA elkarteak antolatuta. Txuri-beltz zein koloretan. Epea: urriak 10.

**■ TXARTELAK**

• Albergista txartela: udan albergeren batera joatekotan bazaude, ez ahaztu txartel hau eskatuko dizutela.

• Nazioarteko ikasle txartela: atzerrira bazoaz, txartel horrekin beherapenak lortuko dituzu garraiobide, museo, ikuskizun eta abarretan.

• Nazioarteko gazte txartela: 26 urtetik beherakoendako.

**Informazio gehiagorako:**
**GAZTE ZERBITZUA**
**☎ 77 00 65**

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Erdialdean etxe handia salgai. Tel.: 79 42 13.

• Gesalibar auzoan baserria salgai. Berritua eta egoera onean. Tel.: 79 97 35. Arratsaldez eta gauez.

• Soraluzen apartamendua salgai. Tel.: 79 50 71.

• Etxebizitza salgai Ferixalekuan. Tel.: 79 52 64.

### 3. Errentan emateko

• Laredon apartamentua alokatzen da uztailean. Hondartza ondoan dago. Tel.: 79 52 80.

• Torreviejan apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 m.ra. 2 gela, saloia eta jangela. Tel.: 77 03 85.

• Zarautzen udan pisua alokatzen da. Alde-zaharrean kokatuta. Tel.: (945) 44 51 14.

• Peñiskolan pisua alokatzen da uztaila eta irailean. Tel.: 79 57 31.

• Udako hileetan Santa Polan (Alicante) bungalow-a eta Torreviejan apartamentua alokatzen dira. Hondartzatik eta herritik gertu. Tel.: 79 32 54 / 79 26 55.

• Alakanten lorategia daukan txaleta alokatzen da uztailean eta abuztuan. Interesatuek dei egin 79 40 01.

• Torreviejan 4 edo 6 lagunendako apartamentua alokatzen da. Igerilekua eta garbigailua ditu. Hondartzaren ondoan dago. Prezioa: 1.500 pta. egunean pertsona bakoitzeko. Tel.: 79 53 18.

### 4. Errentan hartzeko

• Hiru logeladun pisua behar dugu. Tel.: 28 03 16.

• Pisu handi bat behar da 97-98 ikasturterako. (94) 460 86 48. Lan orduetan.

• Abuztuan pisua alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tel.: (945) 44 52 24.

• Pisua alokatuko nuke Arrasaten edo Aretxabaletan. Tel.: 79 90 24 / 77 03 30.

• Arrasaten pisu bila nabil. Txikia badahobe. Tel.: 77 02 81. Tito.

• Pisua behar dugu alokairuan. Tel.: 79 59 62.


**ETXEBIZITZAK**
1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

**GARAJEAK**
7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**
12. Saldu
13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**
17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**
20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

**MOTORRA**
23. Saldu
24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**
26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**
34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak


**77 05 65**

**ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)**

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

• Ikasle gazteak pisu bila. Eskola inguruan bada hobe. Tel.: 74 09 23. Mikel.

### 5. Etxe konpartituak

• Lan finkoa duen mutilak logela bat behar du Arrasaten edo inguruetan. Ekaina-uztailetik aurrera. Tel.: 908-57 64 83.

• Emakume heldua behar da igogailua duen pisua osatzeko. San Andresen. Dei egin arratsaldeko 8etatik 9etara 77 04 60 telefonora. Margari.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Zarugalde kalean garaje itxia salgai. Tel.: 79 63 22.

• Garaje itxia salgai Udala plazan. Tel.: 79 97 03.

• Munarren garajea salgai. Tel.: 79 44 07.

• Roneoko etxebizitzetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

### 9. Errentan emateko

• Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.

• Munarren garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 97 03.

## LOKALAK

### 12. Saldu

• Komertzioa salgai. Bi jardunekin. Ondo kokatuta eta interesgarria. Prezioa konkretatzeko. Tel.: 77 13 91.

• Lokal-garajea salgai Erguin kalean. 22 m$^2$. Prezio interesgarria. Tel.: 79 18 70.

• Garajea salgai edo alokagai San Andresen. 75 m$^2$. Tel.: 79 13 52.

### 14. Errentan emateko

• Erdiko kaleko 48. zenbakian edozein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

• Aretxabaletan funtzionamenduan dagoen ileapaindegi mixtoa alokairuan, solariumaz eta edertasun aretoaz. Ondo kokatuta, herri erdian. 60 m$^2$. Tel.: 77 12 70 / 79 94 39.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Neska gertu aterteak garbitu eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 97 81.

• Neska euskaldunak denda baten lan egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 74 76.

• Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 58 22.

• Emakumea gertu orduka etxeak garbitzeko. Tel.: 77 06 74.

• Lanak euskaratu edota ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 74 76.

### 18. Eskaerak

• Fruta denda baten lan egiteko neska bat behar dugu. Tel.: 77 01 79.

• Neska gaztea eta esperientziaduna behar dugu barra eta jatetxe zerbitzurako. Abuztuan eta irailean. Tel.: 77 01 69.

• Emakume euskalduna behar da ume txikiak zaindu eta etxeko lanak egiteko, baita larunbatetan ere. Tel.: 79 27 27 (lan orduetan) edo 79 70 29.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 45 73. Iluntzeko 8etatik aurrera.

• Neska bat behar da etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 22 92.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Uztailean OHOko klase partikularrak emango nituzke. Tel.: 79 69 41. Arantxa.

• Matematika laugarren mailako ikasle batek klase partikularrak emango lituzke uztailean. Tel.: 77 02 62.

• Laugarren mailako Ekonomia ikasle batek klase partikularrak emango lituzke euskaraz zein erdaraz. Tel.: 79 84 42. Unai.

• Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Tel.: 79 58 22.

• Enpresa zientziatan lizentziatuak klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 33 23.

• Neska batek udan gitarra klaseak emango lituzke. Tel.: 79 20 24.

• Magisteritzan diplomadunak uztailean klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 35 24.

• OHO eta DBHko klase partikularrak emanten ditut. Esperientzia eta merke. Tel.: 79 47 35.

• Neska euskaldunak udan klase partikularrak emango lituzke. OHO, REM, edo BUP. Tel.: 79 51 19.

• Ingeleseko klase partikularrak ematen dira uztailean. Tel.: 79 79 12.

• Uztailean BBBko bigarren mailara arteko klase partikularrak emango nituzke. Tel.: 79 86 06. Itziar.

• Irakasle esperientziadunak klase partikularrak ematen ditu. Tel.: 79 74 76.

• Euskaraz zein erdaraz klase partikularrak ematen ditut. Tel.: 77 04 98.

• Esperientziadun neska batek klase partikularrak emango lituzke, euskaraz nahiz erdaraz. OHO, UBI. Tel.: 79 86 06.

• Biologiako laugarren mailako ikasleak klase partikularrak emateko gertu uztailean eta abuztuan. Tel.: 79 82 42.

## 21. Eskaerak

• Uztailean ingeleseko mintza praktika egiteko irakaslea behar dut. Tel.: 77 05 00 / 79 02 11. Kepa.

• Soziologiako 1. mailako estatistikako klase partikularrak hartuko nituzke udan. Presazkoa da. Tel.: 79 38 48.

## MOTORRA

## 23. Saldu

• Errepideko aluminiozko bizikleta 55 neurriko salgai. Kuadroa Columby eta Campagnolo osagaiak. Prezioa: 45.000 pta. Tel.: 79 60 85.

• Adria 410 TD karabana salgai. Uda eta negurako guztiz jantzita dago. Tel.: 79 66 09.

• Ford Orion salgai. SS-AF. 87.000 km. Egoera onean. Tel.: 79 96 56. Gaueko 9etatik aurrera. Iban.

## DENETARIK

## 26. Saldu

• Siberian Husky txakurkumeak salgai. Pedigri bikaina eta prezio ezinhobean. Tel.: 79 59 85.

• Auto karabana salgai. 3,90 m. 5 lagunendako tokia. Merkea. Tel.: 79 91 21. Lanegunetan, gauez.

• Estreinatu barik dagoen sofa-ohea salgai. 120 zm. Prezio ona. Tel.: 79 14 84.

• Arrazadun behor gazte bat salgai. Tel.: 79 46 75.

• IBM 425 SX ordenagailua prezio onean salgai. Tel.: 79 49 34.

• Erreformagatik solarium profesionala saltzen da. Egoera onean. Tel.: 79 72 56.

• Lur hiztegi enziklopedikoa salgai. Tel.: 79 78 26.

• Kanping karroa salgai. Prezioa: 50.000 pta.Tel.: 77 04 61.

• Ciclon Plus aspiragailua salduko nuke. Erreferentzia: AM-510- Fagor. Tel.: 79 50 96. Alberto.

• Super Nintendo bideo jokoa salgai. Hiru joko ditu eta oso merke salgai. Tel.: 79 79 53. Iñaki.

## 31. Galdu

Maiatzaren 28an betaurrekoak galdu nituen. Metalikoak dira, gorriak. Tel.: 79 85 25.

• Urrezko belarritako bat galdu nuen Erdialdean. Perla zuritxo bat du. Eskertuko da. Tel.: 79 27 74.

• Asteazken goizean Portaloiko farmazian aterkina aldatu zidaten. Iluna da eta kolorezko orritxoekin. Nik bere aterkina daukat. Tel.: 77 05 65.

• Kotxeko gasolina tapoia eta kotxeko giltza galdu ditut Meca gasolindegi inguruan. Tel.: 79 80 25.

• Erdialdean belarritakoa galdu dut. Urrezkoa, bi perla berde ditu eta zortzi txuri. Balio sentimentala du. Eskertuko da. Tel.: 79 56 42.

## 32. Aurkitu

• Urrezko pultsera bat aurkitu nuen larunbatean Sebero inguruan. Izena eta data jarrita dauka. Udaltzaingora deitu.

• Erloju bat aurkitu nuen azokan. Tel.: 79 52 82.

## 35. Kontaktuak

• Somorrostro (Muskiz) edo inguruan ikastera doan jende bila nabil. Tel.: 79 98 28.

OSASUN ARLOKO KURTSOAK
97/98 IKASTURTEA
- KLINIKA LAGUNTZAILEA
- HAUR-HEZIKETA.
- GERIATRIA ETA ERREHABILITAZIOA
- ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA
-TERAPIA ALTERNATIBOAK
MATRIKULA ZABALIK
Daty's
Independientzia, 22-1 GASTEIZ
TEL. 12 07 32

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

TOKION
ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA
Erdiko Kale, 7
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

## *Horoskopoa*

- **Aries** Okela gaindosia hartuko duzu txuletak jaten jarraituz gero.
- **Taurus** Zigarroa erretzean ke mezuak igortzen dituzula dirudi.
- **Gemini** Perfume horrekin arrastoa jarraituko dizu edonork.
- **Cancer** Bromak eta sorpresak egiten sekulakoa zara!
- **Leo** Basamortuan biziko zinateke gustora: inor gabe.
- **Virgo** Gurasoak zuregatik edozer gauza egiteko gai dira.
- **Libra** "Ozpindua" deitzen dizute kalean. Bazenekien?
- **Scorpio** Sukaldari ona zara baina kontuz perretxikoekin.
- **Sagitarius** Umorista profesionala izan nahi zenuke baina...
- **Capricorn** Oporretan pentsatzen hasi beharko zenuke.
- **Aquarius** Patatak zuritzeko gai ere ez zara. Larritzekoa!
- **Piscis** Zeri begira bizi zaude? Mugitu beharrean zaude!

## *Gurutzegrama*



JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1.Pako, Ibai Arteko lehendakari oiharen abizena. 9. Olio-biltegi. 10. Musika-eskalako zazpigarren nota. 11. (Ald.) Gizonei kokotsean, masailetan, eta sudur azpian hazten zaien ilea. 12. Lapurtu. 14. Karrikako. 15. Zezen zikiratu. 16. Alfabetoko hamazazpigarren letraren izena. 17. Peruko hiriburu. 18. Edozein ontziren toki osoa betetzen duen gaia, ez solidu ez likidu dena.

**Bertikalak** 1.Goseak hila, janaria non harrapatuko dagoena. 2. Olibondoz landaturiko saila. 3. Singularreko lehen pertsonaren izenordaina, hitz egiten ari dena adierazten duena. 4. Zori. 5. Ataskatu aditzaren infinitiboa. 6. Ikasgai. 7. Euzko Gaztedi. 8. Madrilen oso ezaguna den Emankortasunaren jainkosa frigiarra. 13. (Ald.) Hamar aldiz ehun. 16. Musu.

**Horizontalak:** 1.Gonzalez. 9. Oliotegi. 10. Si. 11. (Ald.) Bizar. 12. Ebatsi. 14. Kaleko. 15. Idi. 16. Pe. 17. Lima. 18. Gas.
**Bertikalak:** 1. Gosekil. 2. Olibadi. 3. Ni. 4. Zorte. 5. Ataska. 6. Lezio. 7. EGI. 8. Zibeles. 13. (Ald.) Mila. 16. Pa.


EDERTASUN ARLOKO KURTSOAK
97/98 IKASTURTEA
-ILEAPAINGINTZA
-ESTETIKA
-IRUDI-PERTSONALERAKO AHOLKULARITZA
-KIROL MASAIA
-KIROMASAIA
Daty's
Independientzia, 22-1 GASTEIZ
TEL. 12 07 32
MATRIKULA ZABALIK


ZARAVTZ ALTZARIAK
Olarte kalea, 35 • ARRASATE • Tel.: 79 28 44

ILEAPAINGINTZA IKASI ONENAREN ESKUTIK ETA ORAIN ZUGANGIK GERTUAGO
C&C
IRAKASKUNTZA BEREZIA
LLONGUERAS
ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA IRAKASKUNTZA ZENTROAK
GASTEIZ
Olagibel, 61-behea
Tel.: (945)12 03 60
MATRIKULA ZABALIK

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

MA
Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea
HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA
MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA
SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramón M. Lilí, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

# Uztaila programazio berria prestatzeko sasoia ATBn

Normalean uzta jasotzeko sasoia izaten da uztaila, baina Arrasate Telebistan ereiteko bihurtu da azken urteetan. Uztaila, eta baita iraila ere, programazio berria prestatzeko erabiltzen da herriko telebistan. Hori dela eta, egun hauetan informatiboak bakarrik emititzen dira.

*Lotsa barik* eta *Elkartean* moduko programak, urtean zehar ikusteko aukera egon bada ere, landu, prestatu eta grabatu aurrez egin izan dira, uztaila eta iraila horretarako aprobetxatuz. Aurten ere, dagoeneko hasita daude ATBn datorren urtean ikusi ahal izango diren programa berriak lantzen.




**TELEBISTARA HURBILDU NAHI DUTENEI DEIA**

Ideia batzuk dagoeneko martxan badaude ere, herriko telebistan era batera edo bestera lehen lantxoak egin nahi dituenarentzat oraindik bada ATBra hurbildu eta ideiak proposatzeko aukerarik. Beraz, ideiaren bat baduzu, programaren bat aurkezteko gai zarela uste baduzu, edo bertako tresneria erabiliz ikasi nahi baduzu, ez izan dudarik lasai lasai hurbildu Arrasate Telebistara .

## Arrasate Irratia FM 107.7

Arrasate Irratiak udako programazioari ekin dio, eta horregatik, hilabete honetan goizez bakarrik eskaniko du programazioa, goizeko 9etatik 11etara. Kolaboratzaileek hilabete honetan oporrak hartuko dituztenez, gauez ez da irratsaiorik eskaniko. Goizez eskaintzen hasi diren saio berriak "Kerizpean" izena du. Bertan albisteak, musika klasikoari buruzko atala, eta pertsonaia desberdinei egindako elkarrizketak eskainiko dira. Horrez gain, Letra Zopa eta Mazedonia izeneko atalak egingo dira "Kerizpean" saioaren barruan.

**HIES EKIMENA**
Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

**BASABE JATETXEA**
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 79 91 84
ARETXABALETA

**OSTARKU**
DISKOTEKA
Ezkontza osteko jairako eta egun bereziak ospatzeko diskoteka osoa aloka dezakezu eta dohain!
Zatoz eta ondo pasa!
Tel.: 77 03 17

### LAN ESKAINTZA

Arrasateko Udalak plaza hau bete nahi du:

**AOT-OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO BURUA**

Baldintzak: Zuzenbidea, Ekonomia edo Enpresa Lizentziatura.

Oinarri-Arauak ekainaren 4ko GAOn,104.zk.an argitaratu dira, eta Udaletxean jaso daitezte.

Eskaerak aurkezteko epea: uztailaren 18rarte, berau barne.

ARRASATEKO UDALA   **Pertsonal Saila**




Behar bada gaurko argazkia egokiagoa izango litzateke orain pare bat asteko fotozaharrerako, baina aste honetan eskuratu dugunez ezin aurretik argitaratu. Argazkia Acción Católicak 60. hamarkadan argitaratu zuen Mondragon aldizkariaren azal batetik aterata dago, hain zuzen ere 1965eko San Juanen atarian argitaratutakotik.

1964an egin zen Euskal Jaiaren une bat erakusten du argazkiak. Argazkiaren aurrealdean doan emakumezkoa Angelines de la Maza da. Tanborila eusten, berriz, aurrealdeko lehena Pedro Otadui, bestaldean doana Julian Llodio, atzerago doan betaurrekoduna Josemari Agirreurreta eta atzerago ikusten den emakumezkoa Mari Tere Ormaetxea. Tanborila erdialdetik eusten doan gizonezkoa Heriberto Abasolo da, eta bere atzean doana Jose Murgia. Argazkiaren eskumaldean, pospolinez jantzita ageri den neskatila, Pilar Otadui. Tanboril barruan dauden neska-mutilak Mari Merche eta Jose Luis Heriz anai-arrebak dira.

*Urtea: 1964*
*Argazkia: Epelde argazkia*
*Informazioa: Pilar Otadui*

**AZKARATE MORRAS**
PODOLOGIA KLINIKA
Oin arazoak
Haur podologia
Kirol podologia
Biomekanika arazoak
Gari eta onddo tratamenduak
Plantila zuzentzaileak eta silikona ortesiak
Kiropodiak (gogortasunak, azazkalak, maskurrak)
**ORDUA ALDEZ AURRETIK**
**Uribarri etorbidea, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 79 53 63**

ROTULOS
M2
ERROTULOAK
Tel./Faxa: 76 57 93
BERGARA

# Arrasateko OSASUN GIDA

## DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ... ☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk. ... ☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ... ☎79 71 90
- GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis ... ☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º ... ☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ... ☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ... ☎77 12 63

## DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1 ... ☎79 72 16

## FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ... ☎77 03 96

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk ... ☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ... ☎79 48 77

## MASAIARIAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk ... ☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... ☎77 01 33

## MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerias, 56-Behea ... ☎79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ... ☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria)Juan Carlos Guerra, 1 ... ☎79 29 95

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Errebuelta, 2 ... (Mobila) ☎989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ... ☎79 20 18

## PODOLOGOAK

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ... ☎79 53 63

## PSIKOLOGOAK

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ... ☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ... ☎79 48 77

## REUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ... ☎77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 ... ☎79 72 16

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerias, 56 ... ☎79 44 22

OSASUN GIDARAKO IZENEMATEA: 77 08 15


BEHERAPENAK!
UNITED COLORS
OF BENETTON.